

AGINTARIAK ETA LANGILEAK

Oposizioak eta lehiaketak

GOBERNANTZA, ADMINISTRAZIO DIGITAL ETA AUTOGOBERNUAREN SAILA

563

AGINDUA, 2026ko urtarrilaren 30ekoa, Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernuko sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren zerbitzupeko langile lan-kontratudunen hitzarmeneko langile lan-kontratudunentzat gordetako lanpostuak betetzeko lehiaketarako deia egin eta oinarriak onartzen dituen.

Euskal Enplegu Publikoaren abenduaren 1eko 11/2022 Legearen VIII. tituluko II. kapituluaren lanpostuak lehiaketa bidez hornitzeari buruz ezarritakoarekin bat etorriz, eta lege horren 18.2.t) artikulua bidez emandako eskudantziak baliatuz –Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urriaren 29ko 17/2024 Dekretuaren 3.3.f) artikuluan xedatuari dagokionez–, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengo artikulua.– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren zerbitzupeko langile lan-kontratudunen hitzarmeneko langile lan-kontratudunentzat gordetako lanpostuak betetzeko lehiaketarako deialdia egitea.

Bigarren artikulua.– Agindu honen I., II. eta III. eranskinetan agertzen diren lehiaketaren oinarriak, lanpostuen multzoak eta merezimenduen baremoa onartzea.

Hirugarren artikulua.– Epe hau ezartzea eskabideak aurkezteko: 2026ko otsailaren 10etik 2026ko martxoaren 2ko 14:00etara.

AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA

Agindu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA

Agindu honen kontra demanda jarri ahal izango da, bi hilabeteko epean, Vitoria-Gasteizko Lan arloko Epaitegian, Lan Arloko Jurisdikzioa arautzen duen urriaren 10eko 36/2011 Legearen 10.4.a) artikuluan –6.2.a) artikuluari dagokienez– eta arau horren 69. artikuluari ezarritakoaren arabera.

Vitoria-Gasteiz, 2026ko urtarrilaren 30a.

Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernuko sailburua,
MARIA UBARRECHENA CID.

I. ERANSKINA

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIO OROKORRAREN
ZERBITZUPEKO LANGILE LAN-KONTRATUDUNEN HITZARMENeko LANGILE
LAN-KONTRATUDUNENTZAT GORDETAKO LANPOSTUAK BETETZEKO
LEHIAKETAREN OINARRIAK

Lehenengoa.— Xedea.

Oinarri hauen xedea da Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren zerbitzupeko langile lan-kontratudunen hitzarmeneko langile lan-kontratudunentzat gordetako lanpostuak betetzeko lehiaketaren arauak ezartzea.

Bigarrena.— Deialdiaren xede izango diren lanpostuak.

1.— Honako hauek egintza bakar batean esleituko dira:

- Eskaintzen diren lanpostu hutsak, eta
- Lehiaketan lanpostuak esleitzeko prozesuan sortzen diren lanpostu hutsak, hau da, esleipen-prozesuan esleipendun gertatzen diren pertsonak titular diren lanpostuak.

Lanpostu horiek guztiak lehiaketan sartu ahal izateko, sailen eta organismo autonomoen plan-gintzak aurreikusi beharko du lanpostuek indarrean jarraituko dutela.

2.— Lehiaketa honen bidez deituko diren lanpostuak ez dira argitaratuko behin-behineko esleipena argitaratu aurreko unera arte; Enplegu Publikoko Zuzendaritzaren titularrak eman beharko du horri buruzko ebazpena. Ebazpen horretan, datu hauek jasoko dira:

- hutsik dauden eta lehiaketan sartuko diren lanpostuak, eta
- lehiaketa esleitzeagatik hutsik gera daitezkeen eta amortizazio-espeditente batean edo funtsezko aldaketa batean sartuta egoteagatik esleituko ez diren lanpostuen zerrenda.

Bosgarren oinarrian adierazitako lekuetan argitaratuko da ebazpen hori.

Hirugarrena.— Betekizunak eta merezimenduak betetzeko epea.

Deialdi honetan eskatutako betekizun guztiak eta merezimenduak deialdia argitaratzen den egunean bete beharko dira, eta kontratuaren aldaketa sinatu arte eutsi beharko zaie, salbu eta dagokion elkargo profesionaleko kide izatearen betekizuna, zeina sinatzeko unean egiaztatu beharko baita.

Laugarrena.— Parte-hartzaileak.

1.— Lehiaketa honetan parte hartu ahal izango dute Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrarekin eta haren erakunde autonomoekin indarrean dagoen lan-kontratu finkoa dutenek, baldin eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren erakunde autonomoetako langile lan-kontratudunen hitzarmenaren aplikazio-eremuaren barruan badaude eta, betiere, oinarri hauetan eta lehiaketaren xede diren lanpostuen berariazko betekizunak jasotzen dituen lanpostu-zerrendan ezarritako baldintza orokorrak betetzen badituzte.

2.— Ezin izango dute lehiaketa honetan parte hartu:

- a) Aurreko bi urteetan lanpostu baten titulartasuna lortu dutenek.

b) Egoera horrek irauten duen bitartean enplegua eta soldata etenda dituztenek.

c) Norberaren interesagatik borondatezko eszedentzian egonik, lanera itzultzeko eskatzen den gutxieneko denbora eman ez dutenek.

Bosgarrena.— Argitalpenak eta komunikazioak.

Lehiaketan deialdiak Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta helbide elektroniko hauetan argitaratuko dira:

Intranet: Langilearen ataria.

Internet: <https://www.euskadi.eus/eusko-jaurilaritza/funtzio-publikoa/-/lanpostuak-betetzeko-lehiaketa/>

Prozesuan zehar, aipatutako helbide elektronikoan argitaratuko da prozesuaren garapenaren alderdiekin lotutako informazio guztia, jakinarazpen-ondorioetarako. Argitalpen bakoitzarekin, abisu bat bidaliko zaie, SMS edo posta elektroniko bidez, mugikorraren zenbakia edo helbide elektronikoa eman duten parte-hartzaileei. Hala ere, abisu hori bidaltzen ez bada ere, jakinarazpena guztiz baliozkoa izango da, hala xedatuta baitago Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 41.6 artikuluan.

Seigarrena.— Eskabidea betetzeko modua.

1.— Lehiaketan parte hartzeko, bosgarren oinarrian adierazitako lekuetan eskuragarri dagoen eskabide elektronikoa bete beharko da.

2.— Eskatzaileek jaso izanaren agiria eskuratu beharko dute, eta, hor, interesdunek egoera egiaztatu beharko dute. Bakarrik onartuko dira «itxita» egoeran dauden eskabideak.

3.— Inskripzio-prozesuan gorabehera teknikoren bat gertatuz gero, hamargarren oinarrian adierazitako lekuetan horretarako adieraziko den telefono zenbakia edo helbide elektronikoa erabili ahal izango da.

4.— Langileen erregistroan agertzen diren merezimendu guztiak alegatutzat joko dira, baldin eta oinarrietan ezarritako baldintzak betetzen badituzte baloratzeko, eta eskabidean parte hartzen dutenei aurkeztuko zaizkie.

Espresuki alegatu beharko dira Langileen erregistroan jaso gabe dauden merezimenduak. Horretarako, frogagiriaren kopia bidali beharko dute Enplegu Publikoko Zuzendaritzara, «lehiaketa» hitza adieraziz.

Euskal Autonomia Erkidegoko hizkuntza ofizialetako batean aurkeztu beharko dira egiaztagiri horiek. Agiriren bat beste hizkuntza batean idatzita badago, haren zinpeko itzulpena erantsi beharko da.

5.— Eskabideak aurkezteko epea amaitu eta gero, ez da onartuko eskaeretan eta alegatutako merezimenduetan aldaketarik egitea.

Zazpigarrena.— Mugikortasun-eremua: lanpostu-eskaerak.

1.— Parte-hartzaileek titular diren lanpostuaren titulazio-mailaren arabera talde berean dauden lanpostuetako edozein eskatu ahal izango dute.

Talde horiek eta barne hartzen dituzten lanpostuak agindu honen II. eranskinean daude.

2.– Aipatutako taldeetan sartzen ez diren lanpostuen titularrak, hau da,

– lanpostuen zerrendan «amortizatu beharrekoa» edo «funtzionarizatu beharrekoa» oharpena duten lanpostuak, eta

– karrerako funtzionarioen lanpostuak.

Titular diren lanpostuan sartzeko titulazioen maila akademiko altuenaren arabera eskatu ahal izango dituzte lanpostuak.

3.– Kontuan hartuta egintza bakar batean esleituko direla lanpostu hutsak eta lanpostu horiek esleitzean sortzen diren lanpostu hutsak, eskatzaileek, euren lehentasunen arabera, kasuan kasuko taldeko lanpostu-zerrendan jasotako edozein lanpostu zerrendatu ahal izango dute eskabidean.

Ezin izango dira hautatu lehiaketan parte hartu ezin duten titularren lanpostuak.

Zortzigarrena.– Eskabide baldintzatuak.

Baliteke, familiako elkarbizitza-arrazoiak direla eta, bi pertsonak lanpostuak lortu nahi izatea lehiaketa berean, herri berean edo hurbileko herrietan; halakoetan, eskabideetan, baldintza gisa adieraz dezakete lanpostua biek hala biek lortu beharra, eta, hala ez bada, dena delako herriko lanpostuetarako eskabide biak indarrik gabe geratuko dira.

Bederatzigarrena.– Merezimenduak baloratzeko irizpide orokorrak. Ikastaroak eta tituluak.

Merezimenduak baloratzeko, bi irizpide hartuko dira kontuan: merezimenduak duen baliozkotasun formala eta lanpostuarekiko lotura-maila.

1.– Lanpostuarekiko lotura: baloratu beharreko merezimenduaren edukiaren eta lortu nahi den lanpostuak dituen eginkizunen artean loturaren bat dagoenean baloratuko dira merezimenduak. Lotura egongo da baldin eta egiaztatu den merezimenduaren eta lortu nahi den lanpostuaren jakintza-arlo eta -esparruen artean harremana badago. Ez dira baloratuko lortu nahi den lanpostuarekin loturarik ez duten merezimenduak.

2.– Merezimenduaren balio formala.

Hauek dira merezimendu baten balio formala edo garrantzia neurtzeko faktoreak:

a) Titulua bada: graduondokoen kreditu kopurua edo ordu kopurua.

b) Ikastaroa bada: ikastetxea eta ebaluazioa.

3.– Bi irizpide horiek –lotura eta balio formala– ezartzen bazaizkie aurreko apartatuko merezimenduei, honako koefiziente hau aplikatuko da merezimendu jakin bat baloratzean, dagokion baremoaren arabera: Handia (1), Tartekoa (0,75), Txikia (0,25) edo ezin da baloratu (0). Lehiaketa bakoitzaren oinarri espezifikotan zehaztuko diren baremoetan kategoria bakoitzari esleitutako gehieneko balioarekin biderkatuko da koefizientea.

4.– Baloratzeko irizpideak merezimendu bakoitzari aplikatzeko modua bosgarren oinarrian zehaztutako lekuetan argitaratuko da.

5.– Soilik baloratuko dira ziurtagirietan egiaztapen-lanak egiteko funtsezkotzat jotzen diren alderdi guztiak jasotzen dituzten merezimenduak.

5.1.– Langileen Erregistroan jasota ez dauden tituluak alegatu egin beharko dira, eta Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan kontsulta eginez egiaztatuko dira.

Titulu ofizialak eta atzerriko tituluak homologatzeko ziurtagiriak Hezkuntza Ministerioak edo unibertsitateetako errektoreek egin behar dituzte.

Unibertsitateetako graduondoko berezko tituluak egiaztatzeke, unibertsitateko errektoreak egingako diplomak aurkeztu beharko dira. Horietan, gainera, berariaz jaso behar da zenbat ordu edo kreditu egin diren.

Goi-mailako gainerako irakaskuntza-programak egiaztatzeke, dagokion erakundeak egindako diplomak aurkeztu beharko dira; eta denetan jaso behar da ikasketa-planak zenbat ordu edo kreditu dituen.

Araututako lanbide baten lanbide-prestakuntza aitortzen duen egiaztatutuna aurkeztu ahal izango da, Europar Batasunaren xedapenen babesean, dagokion titulu akademikoaren egiaztariaren ordez.

5.2.– Prestakuntza- eta hobekuntza-ikastaroak. Langileen Erregistroan jasota ez dauden ikastaroak alegatu beharko dira, eta horiek egiaztatzeke, IVAPi kontsulta egingo zaio, edo ikastaro horiek antolatu edo deitu dituen organo edo erakundearen kopia konpultsatuen edo ziurtagiriaren bidez egiaztatu beharko dira; eta funtsezko eduki hau izan beharko dute:

a) Izenburua.

b) Hasiera- eta amaiera-datak, eta iraupena (orduak).

c) Ziurtagiria egin duen erakundea.

Hamargarrena.– Lehiaketa kudeatzea.

1.– Enplegu Publikoko Zuzendaritzari dagokio lehiaketak kudeatzea.

2.– Enplegu Publikoko Zuzendaritzari dagokio, lehiaketen kudeatzailea den aldetik, zeregin hauek egitea:

a) Parte hartzeko betekizunak eta esleitu beharreko lanpostuetarako baldintza espezifikokoak betetzen direla egiaztatzea, eta haien egiaztapena baliozkoa dela frogatzea.

b) Merezimenduen baremoak aplikatzeko zeregin materialak eta zeregin arautu hutsak egitea.

– Antzintasuna, esperientzia, hizkuntzak eta hizkuntza-eskakizuna baloratzea.

– Merezimenduen balio formala ezartzea.

c) Balorazio-batzordeak egindako merezimenduen balorazioa gehitzea.

d) Deitutako lanpostuen esleipena proposatzea.

Hamaikagarrena.– Balorazio-batzordea. Izendapena eta osaera.

1.– Balorazio-batzordeari dagokio balorazio-iritzia agertzea eskatzen duten merezimenduak baloratzea, diskrezionalitate teknikoan oinarrituta eta bat etorritik oinarri hauetan ezarritakoarekin.

2.– Lehiaketaren balorazio-batzordea honako hauek osatuko dute, guztiak hitza eta botoarekin:

Batzordeburua: M.^a José Bombín López.

Idazkaria: Eider Basañez Llanos.

1. bokala: Sergio Torres Ibarrola.

2. bokala: Alberto Aguinaco Aguirre.

3. bokala: Ricardo Torre Ortega.

3.– Balorazio-batzordeetako kideek dagozkien kalte-ordainak jasoko dituzte haien zerbitzuagatik, bertaratzeak barnean hartuta, bat etorritz arlo horretako indarreko araudiarekin.

Halaber, dagozkien kalte-ordainak jasoko dituzte aholkularitza ematen dieten pertsonak.

Hamabigarrena.– Balorazio-batzordearen jarduketa-arauak.

1.– Balorazio-batzordeak independentzia osoz, diskrezionalitate tekniko eta objektibotasunez jardungo du.

2.– Jarduteko duen diskrezionalitate teknikoa gorabehera, ebazpenak arrazoitu egin beharko ditu, eta deialdien arauak eta oinarriak bete.

3.– Balorazio-batzordearen erabakiak lotesleak izango dira Administrazioaren organo guztientzat, hargatik eragotzi gabe erabaki horiek berrikustea, administrazio-prozeduraren arloan indarrean den legerian aurreikusitakoaren arabera.

Hamahirugarrena.– Onartuen eta baztertuen zerrendak.

1.– Parte-hartzaileen analisia egin ondoren, Enplegu Publikoko Zuzendaritzaren titularrak onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda argitaratuko du, ebazpen baten bidez, hamargarren oinarrian adierazitako lekuan; baztertuen kasuan, orobat adieraziko du zergatik izan diren baztertuak.

2.– Aipatutako ebazpenak hamar egun balioduneko epea emango du, argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, alegazioak egiteko edo parte hartzeko baldintzak egiaztatzean egin diren akatsak zuzentzeko.

Era berean, eta epe berean, parte hartzeko eskaera hasi eta 6. oinarrian aurreikusitako moduan bideratu ez zutenek izapide-akatsa zuzendu ahal izango dute.

Ez da inola ere onartuko merezimendu berriak edo lanpostuen betekizun espezifikoak alegatzea. Eskatutako lanpostuetan ere ez da aldaketarik onartuko; hau da, ezin izango dira lanpostuak gehitu edo ezabatu, ezta haien ordena aldatu ere.

3.– Alegazioak eta zuzenketak egiteko epea amaituta eta horiek ebatzita, Enplegu Publikoaren zuzendariak onartutako eta baztertutakoen behin betiko zerrenda egingo du. Bosgarren oinarrian aurreikusitako lekuetan argitaratuko da ebazpen hori.

Hamalagarrena.– Merezimenduen balorazioaren behin-behineko zerrendak.

1.– Balorazio-batzordeak merezimenduak baloratu ondoren, Enplegu Publikoko Zuzendaritzaren titularrak honako hauek argitaratuko ditu, ebazpen baten bidez, bosgarren oinarrian adierazitako lekuan:

a) Merezimenduen behin-behineko balorazioa, baremoaren apartatu bakoitzean onartutako parte-hartzaileei emandako puntuazioarekin, eskatutako lanpostu bakoitzari dagokionez, baldin eta lanpostu-zerrendan esleituta dituzten baldintzak betetzen badituzte.

b) Merezimenduak eta betekizunak zuzentzeko errekerimendua, behar den kasuetan.

2.– Aipatutako ebazpenak hamar egun balioduneko epea emango du, argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, alegazioak egiteko edo merezimenduak eta betekizunak egiaztatzean egin diren akatsak zuzentzeko.

3.– Alegazioak eta zuzenketak egiteko epea amaituta eta horiek ebatzita, Enplegu Publikoaren zuzendariak behin betiko aurkeztuko du merezimenduen balorazioa eta bosgarren oinarrian adierazitako tokian argitaratuko da.

Hamabosgarrena.– Lanpostuak esleitzeko behin-behineko proposamena.

1.– Enplegu Publikoko zuzendariaren ebazpen baten bidez, lanpostuak esleitzeko behin-behineko proposamena onartuko da, eta, harekin batera, merezimenduen behin betiko balorazioa argitaratuko da.

2.– Lanpostuak esleitzeko behin-behineko proposamenak parte-hartzaileei esleitutako lanpostuak jasoko ditu, hamaseigarren oinarrian jasotako irizpideen arabera.

3.– Lanpostuak esleitzeko behin-behineko proposamena onartzen duen ebazpenak hamar egun balioduneko epea ezarriko du alegazioak aurkezteko, ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Epe berean, lehiaketan borondatez parte hartzen dutenek aukera izango dute lehiaketa osoan atzera egiteko eta ez hartzeko parte. Epe hori amaituta, ez da atzera-egiterik onartuko. Atzera-egiteak eskatutako lanpostu guztiei eragingo die.

Hamaseigarrena.– Parte-hartzaileei lanpostuak esleitzeko irizpideak.

1.– Lehiaketetako parte-hartzaileei irizpide hauen arabera esleituko zaizkie lanpostuak: batetik, lortutako puntuazio osoa –betiere, oinarrietan ezarritako gutxieneko puntuazioa gainditu beharra daukate–, eta, bestetik, parte-hartzaileek eskaerak egiteko erabili duten lehentasun-hurrenkera.

2.– Lehiaketaren amaierako puntuazioan berdinketarik egonez gero, irizpide hauek aplikatuko dira, hurrenez hurren, berdinketa argitzeko:

– Emakumeei emango zaie lehentasuna, ordainsari-mailetan emakumeak % 40 baino gutxiago direnean. Salbuespena izango da lanposturako beste hautagaiak neurri hori ez aplikatzea justifikatzen duten ezaugarriak baditu, sexuagatiko diskriminaziorik eragiten ez dutenak; kasurako, laneratzeko arazo bereziak dituzten beste kolektibo batzuetako kide izatea.

– Baremoaren apartatu bakoitzean lortutako puntuaziorik handiena, han ageri diren hurrenkeraren arabera.

– Azpiapartatu bakoitzean lortutako puntuaziorik handiena, han ageri diren hurrenkeraren arabera.

Bi kasuetan, apartatu bakoitzean kontuan hartuko den puntuazioak ezin izango du gainditu baremoan horietako bakoitzerako ezarrita dagoen gehieneko puntuazioa, ez eta, azpiapartatuen kasuan, haiei dagokien apartatuari gehienez dagokion puntuazioa ere.

– Antzinasun handiena langile lan-kontratudun finko gisa.

– Antzinasun handiena lehiaketaz edo izendapen askez lortutako azken lanpostuan.

– Antzinasun handiena Administrazioan.

Hamazazpigarrena.– Lanpostuak esleitzeko behin betiko proposamena.

Erreklamazioak aztertu eta egindako atzera egiteak onartu ondoren, hala badagokio, Enplegu Publikoaren zuzendariak ebazpena emango du Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernuko sailburuari helarazteko lanpostuen behin betiko esleipen-proposamena.

Hemezortzigarrena.– Lanpostuak esleitzea.

1.– Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernuko sailburuari dagokio deialdiko lanpostuak esleitzea. Deialdia argitaratzeko erabiltzen den modu bera erabiliko da esleipena argitaratzeko.

2.– Lehiaketa honen bidez postua lortzen dutenek ezingo dute hurrengo bi urteetan deitutako deialdietan parte hartu.

3.– Esleitutako lanpostuak borondatezkoztat hartuko dira, eta beraz, edozer dela ere, ez dute kalte-ordaina eskatzeko eskubiderik izango.

4.– Destinoak sailburuaren agindu baten bidez esleituko dira, eta ezin izango zaie uko egin. Esleipendunak lanpostuan benetan hasi beharko dira esleipen-aginduan zehazten den egunean, ezinbesteko kasuetan izan ezik.

5.– Lehiaketa honen bidez lanpostua lortzen duten langileek esleitutako lanpostua betetzeko ezarritakora egokituko dute beren lanaldia, eta prestazio-araubidearen ondoriozko ordainsariak jasoko dituzte.

6.– Destinoa lortzen duen langileak aurreko lanpostua utziko du deitutako lanpostuen behin betiko esleipena argitaratzen duen Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernuko sailburuaren aginduan zehazten den egunean.

Hemeretzigarrena.– Lehiaketetako datuak babestea eta kudeatzea.

Datu pertsonalak «Hautaketa-prozesuak» izeneko tratamendu-jardueran sartuko dira, honako hauek behar bezala betetzeko: Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren (EB) 2016/679 Erregelamendua, 2016ko apirilaren 27koa, Datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa (Datu Babeserako Erregelamendu Orokorra); 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babestu eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa, eta datuen babesaren arloan indarrean dagoen gainerako araudia.

Tratamenduaren arduraduna: Enplegu Publikoko Zuzendaritza. Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernuaren Saila.

Tratamenduaren helburua eta aurreikusitako erabilerak:

Enplegu publikora sartzeko prozesuak kudeatzea, eta lekualdatze-lehiaketak eta zerbitzu-eginkizunak kudeatzea Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorreko eta haren organismo autonomoetako funtzionarioen eta langile lan-kontratudunen lanpostuetan.

Lan-poltsak kudeatzea (eraketa, integrazioa eta birbaremazioa): Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorreko eta haren organismo autonomoetako aldi baterako lan-eskaintzetarako lan-poltsak zein bitarteko funtzionarioak izendatzeko eta aldi baterako langile lan-kontratudunak kontratatzeke lan-poltsak.

Legitimazioa: tratamendua beharrezkoa da interes publikoaren aldeko eginkizunen bat betetzeko edo tratamenduaren arduradunari emandako botere publikoak betetzeko jardunean (11/2022 Legea, abenduaren 1ekoa, Euskal Enplegu Publikoarena; 5/2015 Legegintzako Errege

Dekretua, urriaren 30ekoa, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duena; 2/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 23koa, Langileen Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duena).

Informazio-hartzaileak:

Sindikatuak eta langileen batzordeak.

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da.

Lan-poltsetan dauden langileen datuak Euskal Autonomia Erkidegoko beste administrazio publiko batzuei eta sektore publikoko entitateei eman ahal izango zaizkie.

Eskubideak: datuetarako irispidea izatea, datuak zuzentzea eta ezerezte, eta informazio gehigarrian azaldutako beste zenbait eskubide.

Informazio gehigarria: web-orri honetan kontsulta dezakezu datuen babesari buruzko informazio gehigarri eta zehatza:

www.euskadi.eus/informazio-klausulak/web01-sedepd/eu/gardentasuna/128100-cap2-eu.shtml

II. ERANSKINA

LANPOSTUEN MULTZOAK

I (A)	Titulazioa: gradua, lizentzia, ingeniartza, arkitektura, diploma, ingeniartza tekniko edo arkitektura tekniko
3493	Koordinatzailea
3437	Hezitzailea
3496	Hezitzailea
3725	Medikua (Dopinare Aurrakako Euskal Agentzia)
3724	Kirol-errendimendu altuko medikua
3439	Peritu judiziala
3433	Psikologoa
3494	Psikologoa
3728	EJko Administrazioako korporazio-sarea kudeatu eta mantentzeko arduraduna
3738	Energiaren, sistemen eta ibilgailuen arloko arduraduna
3571	Laborategiko teknikari fakultatiboa
3748	Baliabide orokorren teknikaria (Fadura)
3730	Baliabide orokorren teknikaria (Lakua)
3438	Gizarte-langilea
3495	Gizarte-langilea
3436	Itzultzaile-interpretea

II (B/C1)	Titulazioa: Goi-mailako teknikaria, teknikaria, batxilergoa edo baliokideak
3729	Arte grafikoetako laguntzailea
3442	Autopsietako laguntzailea
3335	Laborategiko laguntzailea
3338	Portu-zain burua
3715	Sukaldaria
3714	Sukalde eta jantokiko arduraduna
3718	Sukalde eta jantokiko arduraduna
3339	Portu-zaina
3711	Mekanikaria
3037	Mekanikari gainbegiralea
3720	Praktiketako monitorea
3740	Kortako praktiketako monitorea
3721	Ofizial espezialista
3739	Laborategiko behargina
3727	Sukaldeko arduraduna
3722	Itsasontziko arduraduna
3059	Inprentako arduraduna
3717	Mantentze-lanetako arduraduna
3719	Mantentze-lanetako arduraduna
3481	Mekanika-lantegiko arduraduna
3483	Histopatologiako teknikaria
3484	Laborategiko teknikaria
3179	Irudi-teknikaria
3710	Mantentze-lanetako teknikaria

II (B/C1)	Titulazioa: Goi-mailako teknikaria, teknikaria, batxilergoa edo baliokideak
3713	Baliabide orokorren teknikaria (Bilbo)
3712	Baliabide orokorren teknikaria (Donostia)

III (C2/E)	Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatua, eskola-ziurtagiria edo baliokideak
3716	Sukalde eta jantokiko laguntzailea
3453	Lantegiko laguntzailea
3464	Ikuztegiko laguntzailea
3459	Saileko gidaria
3045	Kontserbatzailea
3049	Garbiketa-burua
3726	Garbitzailea
3723	Laborategiko garbitzailea
3344	Peoia
3544	Gaueko jagolea

III. ERANSKINA

MEREZIMENDUAK BALORATZEKO BAREMOA

A) LANPOSTUAK TALDEKATZEKO BAREMOA I (A).

1.– Administrazio Publikoei atxikitako lanpostuetan izandako lan-esperientzia	
Azken 10 urteotako lan-esperientzia baloratuko da, gehienez 75 punturekin, baremo honen arabera:	
– Lan-esperientzia eskuratu nahi den lanpostuan bertan	0,63 puntu hilabete bakoitzeko
– Lan-esperientzia, lortu nahi den lanpostuaren talde bereko lanpostuetan	0,35 puntu hilabete bakoitzeko
1.1.– Aldi berean emandako zerbitzuak ez dira inoiz modu independentean zenbatuko. Horri dagokionez, ez dira zenbatuko eginkizunak behin-behinean esleitura emandako zerbitzuak. 1.2.– Nahitaezko eszedentzia edo seme-alabak zaintzeko edo senideak zaintzeko eszedentzia emandakoaldiak, azken 10 urteotan denbora luzeagoz bete duten lanpostuan baloratuko dira. 1.3.– Betetzen duten lanpostuko lan-esperientzia moduan zenbatuko dira zeregin hauetan emandakoaldiak: prestakuntza edo hobekuntza ikastaroak, euskararen ikaskuntza, norberaren gauzetarako baimenak, aldi baterako ezintasuna edo parekatutako egoerak. 1.4.– Beste lanpostu-multzo bateko lanpostuetan aldi baterako mugikortasunean emandakoaldiak (II. eranskina) titular den lanpostuan zenbatuko dira.	

2.– Titulu akademikoak	
Unibertsitateen edo ospe handiko erakundeen titulu akademiko ofizialak edo berezko tituluak bete nahi den lanpostuaren zereginetik lotura kontuan hartuta baloratuko dira, gehienez 50 punturekin, baremo honen arabera:	
Doktoregoa	Gehienez, 35 puntu titulu bakoitzeko
Mediku espezialista Farmazialari espezialista Biologo espezialista Psikologo espezialista	Gehienez, 35 puntu titulu bakoitzeko
Graduondokoak. Berezko tituluak eta master ofizialak (30 ECTS baino gehiago)	Gehienez, 35 puntu titulu bakoitzeko
Graduondokoak. Aritu espezialistaren tituluak (gehienez 30 ECTS, 750 ordu)	Gehienez, 25 puntu titulu bakoitzeko
Gradua, lizentzia, arkitektura, ingeniari, diplomatura, arkitektura tekniko edo ingeniari tekniko	Gehienez, 25 puntu titulu bakoitzeko
2.1.– Unibertsitate-titulaziei dagokienez, titulazio bakarra baloratuko da ikasketa-eremu bakoitzeko. Era berean, sartzeko betekizun gisa alegatutako tituluaren ikasketa-eremu berekoak diren tituluak ere ez dira baloratuko. 2.2.– Irakaskuntza akademiko bereko ziklo desberdinak gainditu dituztela frogatzen duten langileei soilik baloratuko zaie frogatutako zikloetatik gorengoari dagokion titulua. 2.3.– Ez da merezimendu gisa baloratuko lanpostuan eskatzen den goi-mailako titulua lortzeko behar den titulua.	

2.– Titulu akademikoak

Eta ez dira baloratuko, halaber, dagoeneko baloratu direlako edo betekizun gisa eskatu direlako administrazio honek baliokidetzat jotzen dituen titulazioak.

2.4.– Graduondoko titulu moduan baloratu ahal izango dira baldintza hauetakoren bat betetzen dutenak:

- a) Master ofizialaren maila izatea, eta Unibertsitate, Zentro eta Tituluen Erregistroan jasota egotea.
- b) Unibertsitateko graduondoko berezko titulua izatea, 450 ordukoa edo denbora luzeagokoa, edo gutxieneko iraupena bermatzen duen kreditu kopurua izatea.
- c) Goi mailako irakaskuntza programa baten agiria edo diploma edukitzea, graduondoko unibertsitate irakaskuntzaren parekoa eta ospe handiko erakunde akademiko edo profesional batek (atzerrikoa ere izan daiteke) emandakoa. Graduondoko irakaskuntza mota honen gutxieneko iraupena 450 ordukoa edo gehiagokoa izan behar da.

3.– Hobekuntza-ikastaroak

Deialdiko lanpostuari lotutako gaien inguruko hobekuntza-ikastaroak gaindituta dituztenei gehienez 40 punturekin baloratuko zaizkie, baremo honen arabera:

150 eta 299 eskola-ordu bitarteko iraupena duten ikastaroak

Gehienez 15 puntu ikastaro bakoitzeko

300 ordu edo gehiagoko ikastaroak

Gehienez 20 puntu ikastaro bakoitzeko

3.1.– Hobekuntza-ikastaroak Administrazio Publikoaren Euskal Institutuak edo unibertsitate edo administrazio publikoek antolatutakoak eta homologatutakoak izan behar dira, edo, bestela, trebakuntzaren, giza baliabideen garapenaren, lanbide-prestakuntzaren edo ikerketaren esparruetan ospe handia duten erakundeek emandakoak.

3.2.– Azken 10 urteotan egindako ikastaroak bakarrik baloratuko dira; baina, salbuespen moduan, 150 ordukoak edo hortik gorakoak ere onartuko dira, eta noiz egin diren kontuan hartu gabe baloratuko dira.

3.3.– Iraupena kreditutan ematen bada, kreditu bakoitzak 10 orduko baliokidetzat izango du, beste zehaztasunik ematen ez bada behintzat. ECTS kreditu bakoitzak, aldiz, 25 orduko baliokidetzat izango du.

3.4.– Bulegotikako eta Interneteko programei buruzko ikastaroak ez dira baloratuko.

3.5.– Gai berari buruzko ikastaroak edo ikastaro beraren edizio ezberdinak behin bakarrik baloratuko dira; arlo horretan ordu-kopuru handiena duena aukeratuko da horretarako.

3.6.– Konpetentzia-unitateen egiaztapen partzialak eta profesionaltasun-ziurtagiriak ez dira prestakuntza-ikastaro gisa baloratuko.

Halere, profesionaltasun-ziurtagiria lortzeko prestakuntza-unitateak eta prestakuntza-moduluak baloratu ahal izango dira, betiere prestakuntza-ikastaro ziurtatuen bidez lortu badira, dagozkien orduekin.

3.7.– Doktoretzako ikastaroak eta beste apartatu batean baloratu ez diren unibertsitateko titulua eskuratzeko aukera ematen dutenak hobetzeko ikastaro moduan balora daitezke.

3.8.– Hizkuntza-ikastaroak ez dira baloratuko.

4.– Euskara jakitea	
Euskara jakitea merezimendu gisa baloratuko da derrigortasun-data igarota ez izateagatik betekizuntzat eskatzen ez den lanpostuetan. Gehienez 34 puntu emango dira, puntuazio honen arabera:	
4. hizkuntza-eskakizuna (C2) duten lanpostuetan	1. hizkuntza-eskakizuna egiaztatzeagatik: 12 puntu 2. hizkuntza-eskakizuna egiaztatzeagatik: 17 puntu 3. hizkuntza-eskakizuna egiaztatzeagatik: 25 puntu 4. hizkuntza-eskakizuna egiaztatzeagatik: 34 puntu
3. hizkuntza-eskakizuna (C1) duten lanpostuetan	1. hizkuntza-eskakizuna egiaztatzeagatik: 12 puntu 2. hizkuntza-eskakizuna egiaztatzeagatik: 17 puntu 3. edo 4. hizkuntza-eskakizuna egiaztatzeagatik: 25 puntu
2. hizkuntza-eskakizuna (B2) duten lanpostuetan	1. hizkuntza-eskakizuna egiaztatzeagatik: 12 puntu 2., 3. edo 4. hizkuntza-eskakizuna egiaztatzeagatik: 17 puntu
1. hizkuntza-eskakizuna (B1) duten lanpostuetan	1., 2., 3. edo 4. hizkuntza-eskakizuna egiaztatzeagatik: 12 puntu
5.1.– Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuari (ETZEB) kontsulta eginez egiaztatuko dira euskararen hizkuntza-eskakizunak. Egiaztatutzat joko dira deialdiaren argitaratze-eguneko egiaztatze-datarekin edo lehenagokoarekin erregistro horretan inskribatuta dauden hizkuntza-eskakizunak. 5.2.– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorreko eta haren organismo autonomoetako hizkuntza-eskakizunen baliokide diren ziurtagiri eta tituluak dekretu hauetan zehaztuta daude: 297/2010 Dekretua, azaroaren 9koa, Euskararen jakite-maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetu eta Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko mailekin parekatzeko dena, eta 47/2012 Dekretua, apirilaren 3koa, Euskaraz egindako ikasketa ofizialak aintzat hartzeko eta euskara-maila hizkuntza-tituluen eta ziurtagirien bidez egiaztatzetik salbuesteko dena.	
5.– Antzinasuna	
Gehienez 10 puntu lor daitezke:	
Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak eta haren organismo autonomoek hirurtekoen ondorioetarako aitortutako antzinasunagatik	0,084 puntu hilabete bakoitzeko

6.– Hizkuntzak jakitea	
Hizkuntzak jakiteagatik gehienez 10 puntu emango dira, baremo honen arabera:	
Ingeleseko, frantseseko edo alemaneko B2 mailaren titulu eta ziurtagiri baliokideak:	5 puntu
Ingeleseko, frantseseko edo alemaneko C1 eta C2 mailen titulu eta ziurtagiri baliokideak:	10 puntu
Honako lege-xedapen hauetan maila eta hizkuntza bakoitzerako jasotako titulu eta ziurtagiriak bakarrik baloratuko dira: ekainaren 30eko 117/2015 Dekretuaren eranskina (Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako lanpostuen hautatze- eta hornitze-prozesuetarako tituluen eta hizkuntza-ziurtagirien baliokidetasunari buruzko Dekretua), eta abenduaren 22ko 1041/2017 Errege Dekretua (Zenbait ikasketa-planetan araututako araubide bereziko hizkuntza-ikasketen eta errege-dekretu honetakoen arteko baliokidetzak oinarritzko izaeraz ezartzen dituen Errege Dekretua).	

B) LANPOSTUAK TALDEKATZEKO BAREMOA II (B/C1).

1.– Administrazio Publikoei atxikitako lanpostuetan izandako lan-esperientzia	
Azken 10 urteotako lan-esperientzia baloratuko da, gehienez 85 punturekin, baremo honen arabera:	
Lan-esperientzia eskuratu nahi den lanpostuan bertan	0,71 puntu hilabete bakoitzeko
Lan-esperientzia, lortu nahi den lanpostuaren talde bereko lanpostuetan	0,36 puntu hilabete bakoitzeko
1.1.– Aldi berean emandako zerbitzuak ez dira inoiz modu independentean zenbatuko. Horri dagokionez, ez dira zenbatuko eginkizunak behin-behinean esleituta emandako zerbitzuak. 1.2.– Nahitaezko eszedentzian edo seme-alabak zaintzeko edo senideak zaintzeko eszedentzian emandako aldiak, azken 10 urteotan denbora luzeagoz bete duten lanpostuan baloratuko dira. 1.3.– Betetzen duten lanpostuko lan-esperientzia moduan zenbatuko dira zeregin hauetan emandako aldiak: prestakuntza edo hobekuntza ikastaroak, euskararen ikaskuntza, norberaren gauzetarako baimenak, aldi baterako ezintasuna edo parekatutako egoerak. 1.4.– Beste lanpostu-multzo bateko lanpostuetan aldi baterako mugikortasunean emandako aldiak (II. eranskina) titular den lanpostuan zenbatuko dira.	

2.– Titulu akademikoak	
Unibertsitateen edo ospe handiko erakundeen titulu akademiko ofizialak edo berezko tituluak bete nahi den lanpostuaren zereginetik lotura kontuan hartuta baloratuko dira, gehienez 30 punturekin, baremo honen arabera:	
Lanbide Heziketako Goi-mailako Teknikariaren tituluak	Gehienez 25 puntu titulu bakoitzeko
Doktoretza, graduondokoa, gradua, lizentzia, arkitektura, ingeniariaritz, diplomatura, arkitektura tekniko edo ingeniariaritz teknikoak	Gehienez 10 puntu titulu bakoitzeko
2.1.– Unibertsitate-titulazioei dagokienez, titulazio bakarra baloratuko da ikasketa-eremu bakoitzeko. Era berean, sartzeko betekizun gisa alegatutako tituluaren ikasketa-eremu berekoak diren tituluak ere ez dira baloratuko. 2.2.– Irakaskuntza akademiko bereko ziklo desberdinak gainditu dituztela frogatzen duten langileei soilik baloratuko zaie frogatutako zikloetatik gorenagoari dagokion titulua.	

2.– Titulu akademikoak

2.3.– Ez da merezimendu gisa baloratuko lanpostuan eskatzen den goi-mailako titulua lortzeko behar den titulua.

Eta ez dira baloratuko, halaber, dagoeneko baloratu direlako edo betekizun gisa eskatu direlako administrazio honek baliokidetzat jotzen dituen titulazioak.

2.4.– Graduondoko titulu moduan baloratu ahal izango dira baldintza hauetakoren bat betetzen dutenak:

a) Master ofizialaren maila izatea, eta Unibertsitate, Zentro eta Tituluen Erregistroan jasota egotea.

b) Unibertsitateko graduondoko berezko titulua izatea, 450 ordukoa edo denbora luzeagokoa, edo gutxieneko iraupena bermatzen duen kreditu kopurua izatea.

c) Goi mailako irakaskuntza programa baten agiria edo diploma edukitzea, graduondoko unibertsitate irakaskuntzaren parekoa eta ospe handiko erakunde akademiko edo profesional batek (atzerrikoa ere izan daiteke) emandakoa. Graduondoko irakaskuntza mota honen gutxieneko iraupena 450 ordukoa edo gehiagokoa izan behar da.

3.– Hobekuntza-ikastaroak

Deialdiko lanpostuari lotutako gaien inguruko hobekuntza-ikastaroak gaitututa dituztenei gehienez 50 punturekin baloratuko zaizkie, baremo honen arabera:

80 eta 149 eskola-ordu bitarteko iraupena duten ikastaroak	Gehienez 25 puntu ikastaro bakoitzeko
150 eta 299 eskola-ordu bitarteko iraupena duten ikastaroak	Gehienez 30 puntu ikastaro bakoitzeko
300 ordu edo gehiagoko ikastaroak	Gehienez 35 puntu ikastaro bakoitzeko

3.1.– Hobekuntza-ikastaroak Administrazio Publikoaren Euskal Institutuak edo unibertsitate edo administrazio publikoek antolatutakoak eta homologatutakoak izan behar dira, edo, bestela, trebakuntzaren, giza baliabideen garapenaren, lanbide-prestakuntzaren edo ikerketaren esparruetan ospe handia duten erakundeek emandakoak.

3.2.– Azken 10 urteotan egindako ikastaroak bakarrik baloratuko dira; baina, salbuespen moduan, 150 ordukoak edo hortik gorakoak ere onartuko dira, eta noiz egin diren kontuan hartu gabe baloratuko dira.

3.3.– Iraupena kreditutan ematen bada, kreditu bakoitzak 10 orduko baliokidetzat izango du, beste zehaztasunik ematen ez bada behintzat. ECTS kreditu bakoitzak, aldiz, 25 orduko baliokidetzat izango du.

3.4.– Bulegotikako eta Interneteko programei buruzko ikastaroak ez dira baloratuko.

3.5.– Gai berari buruzko ikastaroak edo ikastaro beraren edizio ezberdinak behin bakarrik baloratuko dira; arlo horretan ordu-kopuru handiena duena aukeratuko da horretarako.

3.6.– Konpetentzia-unitateen egiaztapen partzialak eta profesionaltasun-ziurtagiriak ez dira prestakuntza-ikastaro gisa baloratuko.

3.7.– Hizkuntza-ikastaroak ez dira baloratuko.

3.8.– Ez dira baloratuko ez doktorego-ikastaroak, ez unibertsitate-tituluren bat lortzeko aukera ematen dutenak, ez lanbide-tituluren bat lortzeko aukera ematen dutenak.

4.– Euskara jakitea	
Euskara jakitea merezimendu gisa baloratuko da derrigortasun-data igarota ez izateagatik betekizuntzat eskatzen ez den lanpostuetan.	
Gehienez 25 puntu emango dira, puntuazio honen arabera:	
3. hizkuntza-eskakizuna duten lanpostuetan	1. hizkuntza-eskakizuna egiaztatzeagatik: 12 puntu 2. hizkuntza-eskakizuna egiaztatzeagatik: 17 puntu 3. edo 4. hizkuntza-eskakizuna egiaztatzeagatik: 25 puntu
2. hizkuntza-eskakizuna duten lanpostuetan	1. hizkuntza-eskakizuna egiaztatzeagatik: 12 puntu 2., 3. edo 4. hizkuntza-eskakizuna egiaztatzeagatik: 17 puntu
1. hizkuntza-eskakizuna duten lanpostuetan	1., 2., 3. edo 4. hizkuntza-eskakizuna egiaztatzeagatik: 12 puntu
4.1.– Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuari (ETZEB) kontsulta eginez egiaztatuko dira euskararen hizkuntza-eskakizunak. Egiaztatutzat joko dira deialdiaren argitaratze-eguneko egiaztatze-datarekin edo lehenagokoarekin erregistro horretan inskribatuta dauden hizkuntza-eskakizunak. 4.2.– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorreko eta haren organismo autonomoetako hizkuntza-eskakizunen baliokide diren ziurtagiri eta tituluak dekretu hauetan zehaztuta daude: 297/2010 Dekretua, azaroaren 9koa, Euskararen jakite-maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetu eta Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko mailekin parekatzeko dena, eta 47/2012 Dekretua, apirilaren 3koa, Euskaraz egindako ikasketa ofizialak aintzat hartzeko eta euskara-maila hizkuntza-tituluen eta ziurtagirien bidez egiaztatzetik salbuesteko dena.	

5.– Antzinasuna	
Gehienez 10 puntu lor daitezke.	
Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak eta haren organismo autonomoek hirurtekoen ondorioetarako aitortutako antzinasunagatik	0,084 puntu hilabete bakoitzeko

6.– Hizkuntzak jakitea	
Hizkuntzak jakiteagatik gehienez 10 puntu emango dira, baremo honen arabera:	
Ingeleseko, frantseseko edo alemaneko B1 mailaren titulu eta ziurtagiri baliokideak	5 puntu
Ingeleseko, frantseseko edo alemaneko B2, C1 eta C2 mailen baliokideak diren tituluak eta ziurtagiriak	10 puntu
Honako lege-xedapen hauetan maila eta hizkuntza bakoitzerako jasotako titulu eta ziurtagiriak bakarrik baloratuko dira: ekainaren 30eko 117/2015 Dekretuaren eranskina (Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako lanpostuen hautatze- eta hornitze-prozesuetarako tituluen eta hizkuntza-ziurtagirien baliokidetasunari buruzko Dekretua), eta abenduaren 22ko 1041/2017 Errege Dekretua (Zenbait ikasketa-planetan araututako araubide bereziko hizkuntza-ikasketen eta errege-dekretu honetako arteko baliokidetzak oinarrizko izaeraz ezartzen dituen Errege Dekretua).	

C) LANPOSTUAK TALDEKATZEKO BAREMOA III (C2/E).

1.– Administrazio Publikoei atxikitako lanpostuetan izandako lan-esperientzia	
Azken 10 urteotako lan-esperientzia baloratuko da, gehienez 95 punturekin, baremo honen arabera:	
Lan-esperientzia eskuratu nahi den lanpostuan bertan	0,80 puntu hilabete bakoitzeko
Lan-esperientzia, lortu nahi den lanpostuaren talde bereko lanpostuetan	0,45 puntu hilabete bakoitzeko
1.1.– Aldi berean emandako zerbitzuak ez dira inoiz modu independentean zenbatuko. Horri dagokionez, ez dira zenbatuko eginkizunak behin-behinean esleituta emandako zerbitzuak. 1.2.– Nahitaezko eszedentzian edo seme-alabak zaintzeko edo senideak zaintzeko eszedentzian emandakoaldiak, azken 10 urteotan denbora luzeagoz bete duten lanpostuan baloratuko dira. 1.3.– Betetzen duten lanpostuko lan-esperientzia moduan zenbatuko dira zeregin hauetan emandakoaldiak: prestakuntza edo hobekuntza ikastaroak, euskararen ikaskuntza, norberaren gauzetarako baimenak, aldi baterako ezintasuna edo parekatutako egoerak. 1.4.– Beste lanpostu-multzo bateko lanpostuetan aldi baterako mugikortasunean emandakoaldiak (II. eranskina) titular den lanpostuan zenbatuko dira.	

2.– Titulu akademikoak	
Unibertsitateen edo ospe handiko erakundeen titulu akademiko ofizialak edo berezko tituluak bete nahi den lanpostuaren zereginetik lotura kontuan hartuta baloratuko dira, gehienez 30 punturekin, baremo honen arabera:	
Lanbide Heziketako edo Batxilergoko Teknikarien tituluak	Gehienez 20 puntu titulu bakoitzeko
Lanbide Heziketako Goi-mailako Teknikariaren tituluak	Gehienez 10 puntu titulu bakoitzeko
2.1.– Irakaskuntza akademiko bereko ziklo desberdinak gainditu dituztela frogatzen duten langileei soilik baloratuko zaie frogatutako zikloetatik gorengoari dagokion titulua. 2.2.– Ez da merezimendu gisa baloratuko lanpostuan eskatzen den goi-mailako titulua lortzeko behar den titulua. Eta ez dira baloratuko, halaber, dagoeneko baloratu direlako edo betekizun gisa eskatu direlako administrazio honek baliokidetzat jotzen dituen titulazioak.	

3.– Hobekuntza-ikastaroak	
Deialdiko lanpostuari lotutako gaien inguruko hobekuntza-ikastaroak gaindituta dituztenei gehienez 40 punturekin baloratuko zaizkie, baremo honen arabera:	
50 eta 79 eskola-ordu bitarteko iraupena duten ikastaroak	Gehienez 20 puntu ikastaro bakoitzeko
80 eta 149 eskola-ordu bitarteko iraupena duten ikastaroak	Gehienez 25 puntu ikastaro bakoitzeko
150 eskola-orduko edo gehiagoko iraupena duten ikastaroak	Gehienez 30 puntu ikastaro bakoitzeko

3.– Hobekuntza-ikastaroak

3.1.– Hobekuntza-ikastaroak Administrazio Publikoaren Euskal Institutuak edo unibertsitate edo administrazio publikoek antolatutakoak eta homologatutakoak izan behar dira, edo, bestela, trebakuntzaren, giza baliabideen garapenaren, lanbide-prestakuntzaren edo ikerketaren esparruetan ospe handia duten erakundeek emandakoak.

3.2.– Azken 10 urteotan egindako ikastaroak bakarrik baloratuko dira; baina, salbuespen moduan, 150 ordukoak edo hortik gorakoak ere onartuko dira, eta noiz egin diren kontuan hartu gabe baloratuko dira.

3.3.– Iraupena kreditutan ematen bada, kreditu bakoitzak 10 orduko baliokidetza izango du, beste zehaztasunik ematen ez bada behintzat. ECTS kreditu bakoitzak, aldiz, 25 orduko baliokidetza izango du.

3.4.– Gai berari buruzko ikastaroak edo ikastaro beraren edizio ezberdinak behin bakarrik baloratuko dira; arlo horretan ordu-kopuru handiena duena aukeratu da horretarako.

3.5.– Konpetentzia-unitateen egiaztapen partzialak eta profesionaltasun-ziurtagiriak ez dira prestakuntza-ikastaro gisa baloratuko.

Halere, profesionaltasun-ziurtagiria lortzeko prestakuntza-unitateak eta prestakuntza-moduluak baloratu ahal izango dira, betiere prestakuntza-ikastaro ziurtatuen bidez lortu badira, dagozkien orduekin.

3.6.– Hizkuntza-ikastaroak ez dira baloratuko.

4.– Euskara jakitea

Euskara jakitea merezimendu gisa baloratuko da derrigortasun-data igarota ez izateagatik betekizuntzat eskatzen ez den lanpostuetan.

Gehienez 17 puntu emango dira, puntuazio honen arabera:

2. hizkuntza-eskakizuna duten lanpostuetan:	1. hizkuntza-eskakizuna egiaztatzeagatik: 12 puntu 2., 3. edo 4. hizkuntza-eskakizuna egiaztatzeagatik: 17 puntu
1. hizkuntza-eskakizuna duten lanpostuetan:	1., 2., 3. edo 4. hizkuntza-eskakizuna egiaztatzeagatik: 12 puntu

4.1.– Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuari (ETZEB) kontsulta eginez egiaztatuko dira euskararen hizkuntza-eskakizunak. Egiaztatutzat joko dira deialdiaren argitaratze-eguneko egiaztatze-datarekin edo lehenagokoarekin erregistro horretan inskribatuta dauden hizkuntza-eskakizunak.

4.2.– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorreko eta haren organismo autonomoetako hizkuntza-eskakizunen baliokide diren ziurtagiri eta tituluak dekretu hauetan zehaztuta daude: 297/2010 Dekretua, azaroaren 9koa, Euskararen jakite-maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetu eta Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko mailekin parekatzeko dena, eta 47/2012 Dekretua, apirilaren 3koa, Euskaraz egindako ikasketa ofizialak aintzat hartzeko eta euskara-maila hizkuntza-tituluen eta ziurtagirien bidez egiaztatzetik salbuesteko dena.

5.– Antzinasuna

Gehienez 10 puntu lor daitezke.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak eta haren organismo autonomoek hirurtekoen ondorioetarako aitortutako antzinasunagatik	0,084 puntu hilabete bakoitzeko
--	---------------------------------

6.– Hizkuntzak jakitea	
Hizkuntzak jakiteagatik gehienez 10 puntu emango dira, baremo honen arabera:	
Ingeleseko, frantseseko edo alemaneko B1 mailaren titulu eta ziurtagiri baliokideak:	5 puntu
Ingeleseko, frantseseko edo alemaneko B2, C1 eta C2 mailen baliokideak diren tituluak eta ziurtagiriak:	10 puntu
Honako lege-xedapen hauetan maila eta hizkuntza bakoitzerako jasotako titulu eta ziurtagiriak bakarrik baloratuko dira: ekainaren 30eko 117/2015 Dekretuaren eranskina (Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako lanpostuen hautatze- eta hornitze-prozesuetarako tituluen eta hizkuntza-ziurtagirien baliokidetasunari buruzko Dekretua), eta abenduaren 22ko 1041/2017 Errege Dekretua (Zenbait ikasketa-planetan araututako araubide bereziko hizkuntza-ikasketen eta errege-dekretu honetakoen arteko baliokidetzak oinarritzko izaeraz ezartzen dituen Errege Dekretua).	